

# BARNETIK

BIDASOA ETA OARSOALDEKO KULTUR ALDIZKARIA

2018KO EKAINA

1. ZENBAKIA



JAVIER

SAGARZAZU

MARGOLARIA

ERRENTERRIAKO

JANTZIAREN

ZENTROA

HANDIA

FILMA



AMETSA

ABESBATZAREN

60. URTEURRENA

IRUNGO

LIBURUAREN

EGUNA

# BARNETIK

## BIDASOA ETA OARSOALDEKO KULTUR ALDIZKARIA

**03** Iraganeko oihalen  
ibilbidea



**07** "Handia" filma



**10** Urte luzeetako kantu  
amaigabea

**12** Akuarelaz  
zipriztindutako bizitza



**14** Antzerkia: gorputza  
astintzeko jolas  
poetiko

**16** Letren egun santua



# Iraganeko oihalen ibilbidea

Dantzaren munduan pauso eta jauzietan arreta handia jartzen den arren, dantzariak erabiltzen dituzten arropak ere garrantzia dute. Errenteriako Jantziaren Zentroak iraganean Euskal Herrian erabili ziren arropak berreskuratzeko helburua du.

1971. urtean Errenterian sortutako Iraultza Dantza Taldeak dantzariarentzako arropa diseinatzen lan handia egin du. Taldeak, dirua eduki ahala, jantzi berriak sortu eta zaharrak berritzeko aprobetxatu zuen. 1996. urtean Iraultzak 25 urte bete zituen era osasuntsuan. Orduan, dantza taldeko buru den Ramon Garciak iraganeko jantziak berreskuratu eta moldatzeko lanean jartzea erabaki zuen.

Garciak jantziak ikertzeko prest zeuden taldekide guztiak bildu zituen lanean hasteko. Honela, boluntarioen laguntzaz euskal hiriburu eta artxibategi nagusiak miatu zituzten, iraganean euskal biztanleak nola jantzen ziren ezagutzeko. Artxibategietan gordertako argazkietatik lorturiko informazioa baliatuz, arropa berria egin zuten dantza taldearentzat. Egun, jantzi horiek Jantziaren Zentroko erakusketak antolatzeko erabiltzen dira.



2. solairuko erakusketa. ARG.: Ainara Berges

***"Oso pozik  
gaude urte honetako  
emaitzekin eta,  
datorren urterako,  
bisitarien kopurua  
handitzea espero dugu"***

**Ainhoa Mendiburu,  
Jantziaren Zentroko  
komunikazio arduraduna**

Negoziaketa prozesu luze baten ostean, 2017ko apirilaren 1ean inauguratu zen, azkenean, Jantziaren Zentroa. Lehen urte honetan, zentroak 1.400 bisitari baino gehiago jaso ditu. "Oso pozik gaude urte honetako emaitzekin eta, datorren urterako, bisitarien kopurua handitzea espero dugu", adierazi du Ainhoa Mendiburuk, Jantziaren Zentroko komunikazio arduradunak.

## Historia oparoko eraikina

Errenteriako Kapitain Etxea udal eraikinean kokaturik dago Jantziaren Zentroa. Herritar askok etxe honen iragana ezagutzen ez duten arren, XVII. mende hasierako eraikin bat da. Bertan, armadarekin batera Bizar Gorriren aurka Mallorcako kostaldean borrokatu zen kapitain bat bizi izan zen. Honen ostean, eraikina ostatu moduan ere erabili zen.

Errenteriako Udalak eraikina goitik behera berritu zuen. Urte askotako negoziaketen ostean, Jantziaren Zentroa bertan zabaltzeko akordioa lortu zuen Iraultza Dantza Taldeak. Udalak, printzipioz, bost urterako lagapena egin dio dantza taldeari. Leku publiko bat denez, Iraultzak antolaturiko erakusketez gain, noizbehinka, zentroan bestelako kultur ekintzak antolatzen dira.

## ***"Denbora eta diru gehiagorekin erakusketa gehiago egingo genituzke"***

**Ainhoa Mendiburu,  
Jantziaren Zentroko  
komunikazio arduraduna**

Kapitain Etxeko hiru solairuak erabiltzen ditu Iraultza Dantza Taldeak orain arte bildu eta sorturiko jantziak ikusgai jartzeko. Lehen solairuan behin-behineko erakusketak antolatzen dira. Museoa zabalik daraman lehen urtean zehar epe laburreko zazpi erakusketa egin dira. Ainhoa Mendiburu komunikazio arduradunak azaldu du lehen urte honetan gogor lan egin dutela. "Denbora eta diru gehiagorekin erakusketa gehiago egingo genituzke", gaineratu du komunikazio arduradunak.

Eraikineko bigarren solairuan, iraganean euskal baserritarrek erabiltzen zituzten jantzien erakusketa iraunkorra bisita daiteke. Hirugarren solairuan, berriz, XVIII. mendetik gaur egunera arte European



Hirugarren solairuko erakusketa. ARG.: Ainara Berges

erabili diren arropa ezberdinak ikus daitezke. Jantzien artean, antzinako zenbait objektu ikusgai daude eta bisitariei jolas bat proposatzen zaie, objektu horiek iraganean zeukaten erabilera asmatzen saiatzeko.

Bisitariei Euskal Herriko jantzien solairua asko gustatzen zaiela adierazi du Tania Chave museoko gidariak. "Jendeak iraganeko janzkerak ezagutzen dituela uste du, baina zentro hau bisitatu ostean, gauza berriak aurkitzen ditu", gaineratu du museoko gidariak. Bestalde, eraikinaren azken

solairuan armairu bat dago eta edonork proba ditzake han gordeta dauden arropak. Jantzi horiekin jendea erabat "erotu" egiten dela azaldu du Chavek.

***"Jendeak iraganeko  
janzkerak ezagutzen  
dituela uste du, baina  
zentro hau bisitatu  
ostean, gauza berriak  
aurkitzen ditu"***

**Tania Chave,  
Museoko gidaria**



Gordailuaren eraikina Irunen  
ARG.: Ainara Berges

### **Armairurik egokiena**

Urteetako lan luzearen ondorioz, Iraultza Dantza Taldeak jantzien bilduma erraldoia du. Orain arte arropak Errenteriako lokal batean gordetzen ziren, baina, kontserbazio baldintzak ez ziren batere egokiak. Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundia Jantziaren Zentroarekin harremanetan jarri da Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroan taldeari espazio bat eskaintzeko.

Hitzarmen honen bitartez, taldeak erakusketetatik kanpo dauden pieza guztiak Gordailuan gordetzeko aukera izango du datorren urtean. Ainhoa Mendiburu Jantziaren Zentroko Komunikazio arduradunak azaldu du aukera paregabea dela, baina, jantzien leku aldaketak lan handia emango diela. Izan ere, arropa guztiei argazkiak atera, etiketak jarri eta kutxetan sartu behar dituzte Gordailura eraman aurretik.

Jantziaren Zentroak asteburuetan eta jaiegunetan irekitzen ditu ateak. Bi sarrera mota daude zentroan erakusgai dauden jantziak ikus ahal izateko. Hiru euroko sarrera ordainduz gero, bisitariak zentroa ezagutzeko sarrera librea eskuratuko dute. Bestalde, bost euro ordainduta, bisita gidatua izango da, baina, era honetako bisitak aurrepenarekin eskatu behar dira eta bost pertsonatik gorako taldeek eska ditzaketelako bakarrik.. Ainhoa Mendiburu komunikazio arduradunak azaldu du lehen urtean bisita libreak izan direla arrakastatsuenak.



2. solairuko baserritar jantziak. ARG.: Aina Berges

Urteko garai ezberdinekin erlasionaturiko behin-behineko erakusketak prestatzen saiatzen dira Iraultza taldeko kideak. Gabonetan, esaterako, baserritar jantziekin osaturiko erakusketa bat antolatu zuten museoaren lehen solairuan. Erakusketez gain, tailerrak ere antolatzen dituzte. Hala, baserritar jantzien erakusketarekin erlasionaturik, buruko zapiak lotzen erakusteko ikastaroa antolatu zuten.

***"Jende gutxik du buruko zapiak sozialki zeukaten esanahiaren berri"***

Tania Chave,  
Museoko gidaria

Baserritar arropa tradizionalaz gain, asko dira Jantziaren Zentroan aurki daitezkeen bitxikeriak. Tania Chavek, museoko gidariak, azaldu duenez, iraganean emakumeek burua estaltzeko erabiltzen zituzten zapien koloreen esanahiek harriturik uzten dituzte bisitari asko eta asko. "Jende gutxik du buruko zapiak sozialki zeukaten esanahiaren berri", azaldu du Chavek.



Jantziaren Zentroko 3. solairuko objektu berezien erakusketa ARG.: Aina Berges

# Dantzaren munduan erreferentea


Iraultza Dantza Taldea euskal jantzien inguruan urte luzeetan bildutako informazio guztiarengatik, euskal jantzien munduko erreferente bihurtu da. Bisitarien artean, asko dira Errenteriaraino hurbiltzen diren dantzataldeak, Jantziaren Zentroa ezagutu eta iraganeko ohituren inguruan zerbait berria ikasteko.

Irungo Eraiki Dantza Taldeak 40 urte bete ditu aurten eta, urteurrena ospatzeko, ekintza desberdinak antolatu ditu. Gabonetan Jantziaren Zentroa bisitatu zuten, taldeko dantzariak erabiltzen dituzten jantzien sekretuak eta bitxikeriak gertutik ezagutzeko. Bisita honi esker gauza asko ikasteko aukera izan zutela adierazi du Unai Arretxe taldeko monitoreak.



Eraiki Dantza Taldeko dantzariak Jantziaren Zentroan. ARG.: Naiara Bengoetxea

***"Bisitan lortutako informazioa arropa berria egiteko erabiltzen saiatuko gara"***



**Unai Arretxe,  
Eraiki Dantza  
Taldeko monitoreak**

2017-2018 ikasturtean zehar, Eraiki Dantza Taldeak dantzarako arropa berria egiteko egitasmoa martxan jarri du. "Bisitan

lortutako informazioa arropa berria egiteko erabiltzen saiatuko gara", azaldu du Unai Arretxe taldeko monitoreak. Adibidez, mutilen txaleko berrien koloreak eta oihal-motak erabakitzeak bisita hori lagungarria izan zaiela gaineratu du. Bisitaren unean Jantziaren Zentroan eskuragarri zegoen informazioa bildu eta argazki ugari atera zituzten, etorkizunari begira sortuko dituzten jantzien xehetasunak zaintzeko.



Eraiki Dantza Taldeak Gabonetan bisitatutako baserritar jantzien erakusketa. ARG.: Ainara Berges

Bisitaz gain, maiatzaren 20an Iraultza Dantza Taldeko burua, Ramon Garcia, Eraikik Behobian duen lokalera gonbidatu zuten hitzaldi bat emateko. Hitzaldi horren bitartez, dantza taldeak erabiltzen dituen jantzien azterketa bat egin zuten. Garcia, antzinako ohiturak oinarri hartuta, jantziak egokiak diren edo ez ikusteko.

## "XIX. mendeko erraldoi baten istorioa euskaraz kontatzeak jendearen arreta bereganatu du"

Moriarti ekoiztetxe pasaitarrak Irusoin eta Kowalskirekin batera sortutako ekoizpena da "Handia". Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatzea lortu duen euskarazko hirugarren filma da eta Goya Sarietan erdietsitako 10 sariak Jon Garaño zuzendariaren aurreikuspen guztiak gainditu dituzte.

### Nola jaio zen "Handia" pelikula sortzeko ideia?

Idea bi leku desberdinetan sortzen da. Nire kasuan, umetan eskolarekin Donostiako San Telmo museoa bisitatu nuenetik izan dut buruan Miguel Joaquín Eleizegiren istorioa. Moriarti ekoiztetxeko kideei pelikula egiteko ideia pare bat aldiz aurkeztu nien, baina ez nuen proiektua garatzeko aukerarik izan. Azkenean, Andoni de Carlosek Irusoingo kideei "Handia" izeneko gidoi bat aurkeztu zien. Bertan, Altzoko erraldoiaren fikzioa kontatzen zen haurrentzako eta, gidioa helduentzako moldatu ostean, azkenean, "Handia" sortu genuen.

### Erraza izan zen pelikula ekoizteko finantziazioa lortzea?

Euskal Herriko industrietatik ikusita oso pelikula handizalea da, atzetik dagoenaurrekontuanahiko handia delako. "Loreak" (2014) filmak ate asko ireki zizkigun eta, harrezkero, finantziazioa eskuratzea ez da sasoi batean bezain zaila izan. Kasu honetan, argi zegoen ohiko bideetatik aparte bestelako finantziazio iturriak topatzeko beharra genuela eta, horrela, Film Factory eta Netflix bezalako nazioarteko eragileekin lan egitea lortu dugu.

**"Loreak" filmak ate asko ireki zizkigun"**



Jon Garaño, "Handia" pelikulako zuzendarietako bat. ARG: Gabarra Films

**Aktoreei dagokienez, hasieratik argi izan zenuten zer bilatzen zenuten?**

Hasieran, aitaren rola jokatzeko duen Ramon Agirre zen argi genuen bakarra. Miguel Joaquín-en pertsonaiarekin zalantzak izan genituen, bi aukera genituelako: aktore bat bilatu edo altua zen pertsona bati interpretatzen irakatsi. Gainera, anaia aukeratzeko orduan kontu handia izan genuen, pertsonaien arteko kimika bat egotea ezinbestekoa delako istorioa sinetsgarria izan dadin. Horregatik hautatu genituen Eneko Sagardoi eta Joseba Usabiaga, haien arteko harreman bereziagatik.



"Handia" pelikulako aktoreak. ARG.: [www.francebleu.fr](http://www.francebleu.fr)

## Pelikulako zein pertsonaiekin identifikatzen duzu zeure burua?

Gauza batzuetan Miguel Joaquin sentitzen naiz, eta besteetan, aldiz, Martin. Bi anaia dira, baina arras desberdinak. Bakoitzak alde batera egin nahi du. Pelikulan aldaketa asko gertatzen dira eta askotan bi aukeren artean erabaki behar dute, beltza edo zuria. Nik, ordea, askotan erdiko grisen artean topatzen dut nire burua.

### **"Gauza batzuetan Miguel Joaquin sentitzen naiz eta besteetan, aldiz, Martin"**

## Pelikulak hainbeste arrakasta izango zuela espero zenuen?

Ez, egia esan, jada ez dut gauza horietan pentsatzen. Lanean gogoan jartzen eta gauzak ahalik eta hobekien egiten saiatzen naiz. Editatzen hasi eta



"Handia" pelikulako eszena bat.  
ARG.:@Handiafilm



Eneko Sagardoi antzezlea. ARG.: www.elantepenultimomohicano.com

pelikula muntatzen hasi ginenean beldur asko sentitu nuen eta une gogorrak izan ziren. Donostiako Zinemaldian izandako harrera pentsamendu negatiboak baztertzeko oso lagungarria izan zen, baita jasotako sari guztiak ere. Ondoren etorri den guztia ez nuen irudikatzen eta oso pozik nago.

## Zein da arrakasta horren sekretua zure ustez?

Donostiako Zinemaldia garrantzitsua da, zinema gogoko duen jendearen erakuslehoan kokatzen zaituelako. "Handia" pelikulak muga hori gainditu eta publiko zabalago batera iristea lortu du. XIX. mendeko erraldoiaren istorioa euskaraz kontatzeak jendearen arreta bereganatu du. Ez da superproduktzio bat, baina ekoizpen inportante bat duen euskarazko pelikula bat egiteak jendea erakarri du.

## Zer sentitzen duzu filmak sari bat jasotzen duen bakoitzean?

Poza, izugarrizko

poza. Egia da lehen sariak handiagoa ematen dizutela, lehenak izateagatik zerbait berezia dutelako, baina guztiak dira garrantzitsuak. Goya sariak poz handia eman zidaten mediatikoki duten eraginagatik eta taldekideak sariak jasotzen ikustea oso pozgarria delako. Hala ere, Donostiako Zinemaldian jasotako sariak dira berezienak niretzat.

## Erraza da zinema euskaraz egitea?

Zinema euskaraz egiteko arrazoiak ulertzen ez duen jendea aurkituko duzu beti, pertsona hauen ustez euskarazko pelikula mugatzen duelako. Beste batzuek, ordea, oso ondo ikusten dute erabaki hau. Espainiako merkatuaren kasuan, egia da jende gutxiago joango dela zinemara film hau ikustera. Horretaz gain, deigarria da Euskal Herrian bertan jende asko kexu dela euskarazko pelikulak egiten direlako eta pertsona hauei honela erantzuten diet beti: ez al dakizu azpitoluak irakurtzen?. Norberak erabakitzen du non ipini nahi dituen mugak.



# Handienen artean handiena

## Fitxa teknikoa:

- Filmaren izenburua: Handia.
- Puntuazioa: \*\*\*\*\*
- Zuzendariak: Aitor Arregi eta Jon Garaño.
- Aktoreak: Joseba Usabiaga, Eneko Sagardoi, Iñigo Aranburu, Ramon Agirre, Aia Kruse.
- Gidoia: Andoni de Carlos, Jose Mari Goenaga, Jon Garaño eta Aitor Arregi.
- Argazkia: Javi Agirre Erauso.
- Musika: Pascal Gaigne.
- Herrialdea: Espainia.
- Generoa: drama, film biografikoa.
- Urtea: 2017.
- Iraupena: 114 minutu.



Pelikularen kartela. ARG: SensaCine.

**B**egiak itxi eta XIX. mendeko baserri girora bidaiatzeko aukera paregabea eskaintzen du "Handia" filmak. Lehen Karlistaldian borrokatu ostean, Martin Eleizegi etxera itzuliko da eta bere anaia Miguel Joaquinen altuerak txunditurik utziko du. Denborak aurrera egin ahala, Miguel Joaquinen gorputzak handitzen jarraituko du eta baserriaren egoerak okerrera egingo du. Orduan, anaiaren berezitasuna baliatuz baserria salbatzeko aukera ikusiko du Martinek.

Moriarti ekoiztetxeko kideek euskal esparruko gai bat pantaila handira eramatea lortu dute berriz ere. Ez dira hainbeste urte igaro "Loreak" (2014) filma zineman estreinatu zenetik eta, pelikula hark zabaldutako bidea aprobetxatuz, euskaraz ekoiztitako film batengatik apustu egin dute beste behin ere. Ohiko profesional taldea alboan izan dute Altzoko erraldoiaren bizitza XXI. mendeko ikusleei gerturatzeko orduan.

*Handia* etengabeko aldaketen segida amaigabea dela esan daiteke. Joaquinen gorputzak hazten jarraitzen duen bitartean, bizitzak era askotariko probak ipiniko baitizkio Altzoko familia honi. Oztopo hauek, anaien arteko harremana ahuldu eta indartuko dute aldi berean. Pelikulan barna, noraino iristeko gai den ikusi beharko du pertsonai bakoitzak.

Anaien arteko lotura berezia irudikatzen duen pelikula honetan, eszena hunkigarririk ez da falta. Filmaren amaiera aldera, elurreztatutako zelaian anaiak elkar besarkatzen duteneko irudiak guztion barrenak astinduko ditu. Halako irudi zoragarriek "Handia" erraldoien istorioak kontatzen dituzten gainontzeko pelikuletatik bereiziko dute.

Nabarmentzekoa da oso filmaren argazki kalitate gorena. Euskal paisaien edertasuna era ezin hobean islatzea lortu baita, Euskal Herrien

edertasun ezkutua azalerratu. Irudiez gain, Eneko Sagardoi aktorearen interpretazioak filma borobiltzea lortu du zalantzarik gabe. Joaquinen bizitzan guztiz murgiltzea lortu du, aktore gazteak, gorputz erraldoi horren atzean gordeta dauden sentimenduak erakusteko.

Filma luzeegia dela dirudien arren, ez da honela inolaz ere. Zatiren bat moztu edo ezabatuz gero, pelikulak bere berezitasuna galduko luke eta. Izan ere, xehetasun txikiak egiten dute handi film hau eta eszena bakoitza kontu handiz aukeratua eta landua izan dela nabari da. Zehaztasunik gabe, gauzak erdizka geratzeko arriskua egongo litzateke, bidean gertaeren azalpenak galtzeko arriskua sortuz.

"Handia" pelikulak Altzoko erraldoia bezain erraldoiak eta paregabeak diren sentimendu, eskarmentu eta istorioak ezkutatzen ditu bere eszenen itzaletan.

## Urte luzeetako kantu amaigabea

*Irungo Ametsa Abesbatza Kultur Elkarteak 60 urte bete zituen 2017 urtean*



**Fernando Etxepare, Ametsa eta Betiko Ame abesbatzetako zuzendaria.**  
ARG.: Ainara Berges

Lagun-talde baten kantatzeko zaletasunetik sorturiko abesbatza da Ametsa. Lehen urteetan 18-20 urte bitarteko lagun-taldea Gabonetan biltzen zen bakarrik, Gabon-kantekin Irungo kaleak alaitzeko. Taldean musika ezagutzak zituzten bakarrak, Fernando Etxepare eta Ricardo Requejo ziren. 1957. urtean bi musikari hauen lagun-taldeak elkartu eta Gabonetatik kanpo entseatzeko hasi ziren.

"Ametsa: errealitate bihurturiko ametsa" liburuan biltzen dira elkartearen sorrera eta ondorengo 40 urteak. 60 urteren ostean, gauza batzuk asko aldatu dira Ametsaren barruan. Elkarteak 500 kide inguru ditu egun eta, guztira, 150 kantari baino gehiago dira. Kantariak, adinaren arabera, lau abesbatza ezberdinetan banatzen dira: Ametsa Txiki, Ametsa Gazte, Ametsa Abesbatza eta Betiko Ametsa.

Ametsak estatu zein nazioarteko lehiaketetan parte hartu du 60 urte hauetan.

Elkarteko sortzaile izan zen Fernando Etxepare zuzendaria zen sasoian, abesbatzek sari eta aitorten ugari bereganatu zituzten. Izen bera duen Fernando semeak aitaren pausoak gertutik jarraitu ditu, Ametsa abesbatza eta Betiko Ametsa abesbatzen zuzendaria baita egun.

***"60 urte gauza bera egiten eman dituen edozein elkarte edo taldek errespetu handia merezi du"***

**Fernando Etxepare,  
Ametsa eta Betiko Ametsa  
abesbatzetako zuzendaria**

"60 urte gauza bera egiten eman dituen edozein elkarte edo taldek errespetu handia merezi du", nabarmendu du Fernando Etxepare zuzendariak. Etxeparek azaldu du 2017a urte lasaia izatea espero zuela, baina, azkenean, elkartearentzat emanaldiz beteriko urtea izan

dela. Urteurren berezi hori behar bezala ospatzeko gauza ugari egin baziren ere, Irungo Jaietako egitarauaren barruan elkarteak eskaini zuen kontzertua izan zen ekitaldi nagusia.

San Pedro eta San Martzial jaien ospakizuna aitzaki hartuta, Amaia Kultur Zentroan "Carmina Burana" obra interpretatu zuten Ametsa elkartearen osatzen duten abesbatza guztiek. Obran, elkarteko adin guztietako kantariak parte hartu zuten, urtean zehar ikasitakoa erakusteko. Ametsa Gazte abesbatzako kantari ohia da Maria Martin, baina "Carmina Burana" obran rol berezia izan zuen, abeslari bakarlarari moduan abestu baitzuen.

Martinek zortzi urterekin abiatu zuen bere musika heziketa Ametsa Txiki abesbatzan. Abeslariak azaldu du, hasieran, musika zaletasun bat zela, besterik ez, eta orain, bere bizitza profesionalaren parte dela. Izan ere, Francisco Escudero Musika Kontserbatorioan erdi-mailako kantu graduan dabil. "Kontzertu edo emanaldi bakoitzarekin sentitzen dudana azaltzea ezinezkoa da", dio Maria Martin abeslari bakarlariek.

***"Kontzertu edo emanaldi bakoitzarekin sentitzen dudana azaltzea ezinezkoa da"***

**Maria Martin,  
Abeslari bakarlarria**



Maria Martin abeslaria  
ARG.: Marcos Martin

## Etorkizuna taldeko gazteen esku

Ametsa Gazte abesbatzako zuzendaria da egun Eneko Amondarain. Urtebete darama abesbatza gaztearen zuzendaritzan eta, hasieran bere burua zuzendari moduan ikusten ez zuen arren, taldean giro ona eta konfiantza sortzea lortu du.

Eneko Amondarain Ametsa Gazte abesbatzako zuzendariak eginkizun zaila duela dio: "kantari gazteekin lan egitea gustuko dudan arren, ez da lan erraza". Zuzendariak, era berean, azaldu du gazteak abesbatzan mantentzeko eskola eta egitasmo interesgarriak proposatzea ezinbestekoa dela.

Metodologiari dagokionez, Amondarainek gazteak hezteko prozedura berezia darabil. Partitura berri bat lantzerako orduan, abestiaren letra alde batera uzten dute hasieran eta partituretan

## Bestelako berrikuntzak

Jaietako kontzertu nagusiaz gain, elkarteak bestelako berrikuntzekin ospatu du 60. urteurrena. Elkartearen egoitzaren itxura zaharberitu dute eta leihoetan apaingarri berriak ipini dituzte. Partitura baten marrazkiarekin apaindurik dago orain lokalaren kanpoaldea, kolore eta argi apaingarriekin batera, elkartearen egoitzari ukitu modernoago bat emateko.

Elkartearen kanpo-komunikazioan ere aldaketak egin dira. Elkartearen webgunea goitik behera itxuraldatu da, elkarteari buruzko datuak gaurkotu eta interesa dutenei informazio erabilgarriagoa eskaintzeko. Honela, webgune berrian abesbatza bakoitzak atal propioa dauka, non talde bakoitzaren ezaugarriak eta kontzertu datak kontsultatzeko aukera eskaintzen den.



bai abeslarien zein elkarteko batzarkideen artean. Prestutasun horri garrantzi handia ematen dio Amondarainek, etorkizunari begira hobetzen jarraitzeko eta, urte askoan, Ametsa taldea kantuaren munduko erreferente bat izan dadin.

ageri diren notetan zentratzen dira. Ikasleek musika atala guztiz menperatu behar dute abestiaren letra lantzen hasteko.

Ametsa Gazteko zuzendariak nabarmendu du elkartearen lan egiteko prestutasun handia duen jendea dagoela,

***"Kantari gazteekin lan egitea gustuko dudan arren, ez da lan erraza"***

Eneko Amondarain,  
Ametsa Gazteko  
zuzendaria



Ametsa Abesbatza Kultur Elkarteko kideak. ARG.: [www.coroametsa.org](http://www.coroametsa.org)

# Akuarelaz zipriztindutako bizitza

Javier Sagarzazu margolaria 1946an jaio zen Hondarribian. Gipuzkoako kostaldeko herrian hasi zen Sagarzazu bere lehen margolanak sortzen. Oraindik ere osabak oparitu zion lehen akuarela kutxatxo bat altxor baten moduan gordetzen du, nahiz eta 50 urte baino gehiago daramatzen pinturaren munduan.

Hondarribiko Gipuzkoa Plazako arkupeetan dauka Sagarzazuk egun bere akademia. Bertan, ikasleei artearen eta pinturaren inguruan dauzkan ezagutzak irakasten dizkie. Akuarelaz zipriztindutako aulki eta mahaien artean Sagarzazuren akuarela bere ikasleen lanekin nahasten dira. Butanozko estufa zahar baten epeltasunean ematen ditu Sagarzazuk egunaren ordurik gehienak artean murgilduta.

Umetan estreinakoz margotzen hasi zenean, pintura teknika edo materialen inguruko ezagutzaurriak zeuzkala onartu du Sagarzazuk. Egurrezko margoekin pintatzen hasi zen, hamalau urterekin osabak lehen akuarela kutxatxo bat oparitu zion arte. Bere kabuz margotzen jarraitu zuen eta, Donostiako akademia batean lau urte igaro ondoren, Madrilera abiatu zen. Espainiako hiriburuan, 1967an, orientazio artistikoko ikastaro batean parte hartzeko beka bat jaso zuen. Ikastaroaren amaieran, Orientazio Artistikoko Sari Nazionalarekin saritu zuten bere lana.

Oso gazte zela konturatu zen Sagarzazu artea bere pasioa zela eta, zalantzarik gabe, bere ogibide bihurtzea erabaki zuen. Edozein bazterrean egiten du topo

inspirazioarekin margolariak, kalera irteten den bakoitzean.

***"Jakin-mina eta curiositatea artearen munduan trebatzeko ezinbestekoak dira"***

Hala ere, "jakin-mina eta curiositatea artearen munduan trebatzeko ezinbestekoak dira" Javier Sagarzazuren ustez, eta horrek lagundu dio bere ibilbidean aurrera egiten. Enkarguak eta lan desberdinak egin dituen arren, nahi izan duena nahi izan duen moduan margotu duela beti onartu du artistak.



Urte hauetan barna teknika desberdinak landu ditu Sagarzazuk, baina olioaren eta akuarelaren artean, margolariak onartu du akuarela dela bere teknika kutunena. Akuarela bere bizitzan ezinbestekoa izan dela uste du artistak. Akuarelaren aldeko hautua egiten duen artista batek olio era desberdin batean eta beste ikuspuntu batetik lantzen duela azaldu du margolariak. Margotzeko estiloa, beste teknikekin alderatuta, arinagoa da Sagarzazuren ustez.



Javier Sagarzazu margolaria bere estudioan. ARG.: Ainara Berges

Margolan berri bat sortzerako orduan iturri desberdinak bilatzen ditu margolari hondarribiarrak: argazkiak, marrazkiak edo arkatzez hartutako apunteak. "Margolan bat sortu aurretik, margotzeko eguneko unerik egokiena zein den aztertzen dut", azaldu du Sagarzazuk. Lekuaren arabera, egunsentia edo iluntzea interesgarriagoak egiten zaizkio artistari eta beti saiatzen da argirik bereziena harrapatzen, kolore berezi horiek bere margolanetan islatzeko. Margolanak agintzen diola azaldu du pintoreak, margolanak markatzen dizkiola jarraitu beharreko pausoak.

## Etxeko paisaien berezitasuna

Paisaiek osatzen dute Javier Sagarzazuren obraren zati handi bat, baina, bereziki, Bidasoa inguruko paisaiak margotzea atsegin du. Baionan hasi eta Donostiara bitartean kokatzen dira Sagarzazuren obrarik gehienak. Itsasoa eta ilunabarrak dira artistaren obretan protagonista. Bidasoa bailararen ingurua leku pribilegiatua dela uste du artistak. Ez alferrik, margolari handien sehaska izan da. Margolari handi horien artean, Mentxu Gal edo Gaspar Montes Iturrioren izenak aipatu ditu artistak.



Hondarribiko paisaiak.

ARG.: artistaren webgunea

***"Margolan bat sortu aurretik, margotzeko eguneko unerik egokiena zein den aztertzen dut"***

Etxeko paisaiek Sagarzazu maitemindurik duten arren, bestelako paisaiak probatzera ausartu da. Alemaniako Dresden edo Berlin inguruko paisaiak margotu ditu, baita Espainiako leku ezberdinak. Andaluziako argia bereziki polita iruditzen zaiola eta Toledo edo Gaztela inguruko soiltasunarengatik erakarria sentitzen dela azaldu du Sagarzazuk.



Javier Sagarzazu margolariaren tailerreko akuarelak. ARG.: Ainara Berges

## Gauza berriekiko jakin-mina

Javier Sagarzazuk fase ezberdinak bizi izan ditu bere estiloan, baina inoiz ez dio paisaiak margotzeari uko egin. Denborak aurrera egin ahala, bere estiloak bilakaera handia izan du. "Inoiz ez dut margolan bat guztiz amaitzen, beti dago hobetzeko zerbait", azaldu du Sagarzazuk.

Paisaien artean, estilo abstraktuago bat lantzeko aukera izan du azkenaldian margolariak. Noizbehinka bere lanetan gauza berriak probatzen saiatzen da, baina emaitza bere gustukoa ez denean, margolariak adierazi du margolana apurtzea edo lana berriro egitea izaten dela egokiena. Gauza berrien bilaketa horretan, museo eta erakusketetara egiten dituen bisitek asko laguntzen dute Sagarzazu. Margolan bakoitzeko bi edo hiru proba egiten ditu, noizbait margolanen bat guztiz amaitzeko itxaropenarekin.

## Antzerkia: gorputza astintzeko jolas poetikoa

Gaur egungo gizartean Antzerkia kontsumitzeko kulturarik ez dagoen arren, Errenterian artearen adar hau indartu eta garatzeko ekimenak ez dira falta. Dejabu Panpin Laborategia izena duen konpainiak zabaldu zuen bidea 2001. urtean. Antzezlanen sorkuntzaz gain, antzerkia errenteriarrei hurbiltzeko pausuak eman zituzten, Antzerki Labea izeneko proiektua sortu arte.

Ikasleen adierazpen askatasuna indartzea eta zabaltzea dira Antzerki Labea proiektuaren helburu nagusiak. Niessen Kultur-guneko 2. solairuan du antzerki sormenak bere habia. Udal tailer horietan antzerkia adin guztietako lagunei hurbiltzen zaie, haur, gazte eta helduentzat pentsaturiko ikastaro bereziekin.

Arkaitz Gartzandia eta Miren Alcala irakasleek London International School of Performing Arts (LISPA) antzerki eskolan ikasitakoa erakusten diete ikasleei. "Beste eskoletatik bereizten gaituen proiektu oso

interesgarria da Antzerki Labea", adierazi du Arkaitz Gartzandia irakasleak. Gorputza da lan tresna nagusia eta errealitatea poetikoki islatuko duen antzerki bat egitea dute xede.

**"Beste eskoletatik bereizten gaituen proiektu oso interesgarria da Antzerki Labea"**

**Arkaitz Gartzandia, Antzerki Labeako irakaslea**

Gorputz adierazpena ahalik eta gehien garatzeko, Gartzandia irakasleak Londresko eskolan ikasitako metodologia aplikatzen du. Antzezlan berriak lantzerako orduan antzerki isila egiten dute; hitzari garrantzia kentzen zaio, gorputzaren adierazpenean zentratzeko Honela, Arkaitz Gartzandia irakaslearen arabera, benetako antzerkia nola sortzen den ezagutzea posible da.



Arkaitz Gartzandia antzezlea  
ARG.: www.starnow.com

Antzerkia ogibidetzat dutenentzat labide-heziketa eskaintzeaz gain, Antzerki Labeak bestelako zaleak ere onartzen ditu. Sorkuntza ikastaroko Maialen Viaña ikaslearen kasua da: "Antzerkia errutinatik deskonektatzeko aitzakia da". Deskonexio horrek egunerokotasunean egiten ez dituen gauzakegitea ahalbidetzen dio ikasle errenteriar honi.

**"Antzerkia errutinatik deskonektatzeko aitzakia da"**

**Maialen Viaña, Antzerki Labeako sorkuntza ikastaroko ikaslea**

Miren Alcala Antzerki Labeako irakasleak azaldu du antzerkia pizkunde momentu batean dagoela. Hala ere, gizartean ez dago antzerkia kontsumitzeko kulturarik. Gainera, antzerki konpainiak eta hauek ekoiztako antzezlanak gero eta gehiago diren arren, erakundeek emandako babesa eskasa da oraindik.



Antzerki Labeako tailerrak. ARG.: Miren Alcala

# Dejabu Panpin Laborategia



Dejabu Panpin Laborategia. ARG: [www.antzerkilabea.com](http://www.antzerkilabea.com)

Antzerki Labea egitasmoa sortu aurretik, Dejabu Panpin Laborategia jaio zen 2001. urtean Errenterian. Londresko antzerki eskolatik iritsi berria zen gazte talde batek antzerki poetikoa eta txontxongilogintza garatzeko proiektua abian jarri zuen.

2010. urtean Miren Alcalá batu zen Ainara Gurrutxagak eta Urko Redondok martxan jarritako proiektura. Hamazazpi urte lanean aritu dira eta, antzezlan ugari sortu ostean, "Linbo Planeta" lanarekin biran ari dira Euskal Herriko antzokietan barna. Etxeko guztiei zuzendutako honetan, askatasuna, desberdintasuna eta irudimena dira protagonista nagusiak.

Antzerki mota berezia egiteaz gain, hizkuntzari ere garrantzi handia ematen diote. Izan ere, Dejabu Panpin Laborategian obraren sormen prozesu guztia euskaraz egiten da. Miren Alcaláren ustez, oso aberasgarria da antzerki konpainiarentzat euskara bezalako hizkuntza baten inguruan lan egitea, euskarak beste ikusleia batengana

iristea ahalbidetzen dielako.

***"Egun euskarazko antzerkiaren eskaintza zabalagoa da, nahiz eta euskarazko obra gehienak beste hizkuntzetatik itzuliak izan diren"***

**Miren Alcalá,  
aktorea eta antzerki irakaslea**

Azken urteotan, Antzerki Labea eta Dejabu Panpin Laborategiaren elkarlanari esker, euskal antzerkiaren munduari bultzada handia eman zaio. Zentzu horretan baikorra den arren, ñabardurarik ere badu. Miren Alcalá antzezleak: "Egun euskarazko antzerkiaren eskaintza zabalagoa da, nahiz eta euskarazko obra gehienak beste hizkuntzetatik itzuliak izan diren". Hortaz, etorkizunari begira, euskarazko antzerkiaren munduan lan asko dagoela gaineratu du Alcalá.

## Motibazioa beldurraren gainetik

Antzerki munduan mugitu arren, aldika lotsak eta beldur eszenikoak azaleratzea guztiz normala da. Oztopo hauek gainditzea ezinbestekoa da eta, horretarako, motibazioa da Miren Alcaláren aburuz konponbiderik egokiena. Izan ere, antzerki gozatzeko grinak bultzatuko du ikaslea arazo hauek gainditzera.

Antzezle profesionalen kasuan agertzen dira ere noizbehinka. Arkaitz Gartziandiak esandakoaren arabera, aktoreak eszenatokira igotzen diren bakoitzean, ikusleen aurrean biluzten dira. Hala ere, "Beldur gutxiagorekin joaten gara hurrei zuzendutako antzezlanetara", dio Miren Alcalá. Hortaz, beldurrak gainditu beharko ditu euskal antzerkiak, aurretik duen loraldi-garaiaz disfrutatuta ahal izateko.



Dejabu Panpin Laborategiaren azken lana. ARG.: [www.domestika.org](http://www.domestika.org)

# Letren egun santua



Liburuaren Azoka Irungo Zabaltza Plazan. ARG.: Ainara Berges

Urtero moduan, Irunen liburu tontor amaigabeak izan dira 2018ko apirilaren 23an, Liburuaren Egunean, protagonista. Labetik atera berri diren lanak literatur klasikoekin nahastu ziren erakusmahaietan. Apurka-apurka teknologia kulturaren munduan sartzen ari bada ere, egun honek argi eta garbi utzi zuen oraindik badela paperean irakurtzea gustuko duen jendea.

Irungo Carlos Blanco Aginaga Liburutegian hasi zen eguna. Goizean goiz, 10:10ean, Uxue Alberdik bere azken lanaren irakurketari ekin zion. Ahots irmoz irakurri zituen idazle elgoibartrak euskaraz idatziriko "Jenisjoplin" eleberraren hitzak, nahiz eta, irakurtzen hasi aurretik, liburua hartzen duen bakoitzean akats berriren bat topatzen duela aitortu. Ondoren, Juncal Eizagirre kultura ordezkariak eta hiritarrek hartu zuten Alberdiren hitzen

lekukoa udalak antolaturiko irakurketa publikoetan.

Ordu erdi geroago, liburutegiko beste bazter batean, Juncal Eizagirrek Miguel de Cervantesen obra ezagunenaren irakurketari hasiera eman zion, Jose Antonio Santanok, Irungo alkateak, kale egin ostean. Segidan, Iñaki Zeberio liburutegiko buruak jarraitu zuen Mantxako zaldunaren abenturen kontaketaekin. Urez betetako edalontzia fotokopien gainera jausi zitzaion arren, ez zion irakurtzeari utzi.

CBA liburutegian obrak bata bestearen atzean irakurtzen ziren bitartean, 11:00etan Liburu Azokak, bigarren egunez, atea ireki zituen. Elkar, Tinta Comics eta Brönte liburu-dendetako saltzaileek alaitasun handiz ase zituzten Zabaltza plazaraino gerturatu ziren literatur zaleen eskaerak.

Karpa zuriaren barruan genero eta adin guztietarako liburuak aurki zitzaketen irakurleek. Eva Txoperenak,

Elkar liburu-dendako dendariak, gehien saldutako liburuak izan zituen aipagai: "Maria Dueñas edo Noelia Lorenzo Pinoren lanek arrakasta handia izan dute". Halaber, etxeko gazteentzako liburuak ere salgai egon ziren. Adibidez, Iñaki Fernandezek bost eta zazpi urteko bilobentzako liburuak erosi zituela adierazi zuen, "txikitatik irakurtzea zein ederra den ikas dezaten".

Egunaren amaieran, Liburu Azokaren karpa jaso eta liburuakohiko apalategietara itzuli zituzten dendariak. Hurrengo urteko Liburuaren Eguna izan arte itxaron beharko da Irungo kaleak literaturaz bete daitezela. Bitarte horretan, literatur zaleek ohiko liburu-dendetan izango dute kulturarekin hitzordua.

## Literatura auzoz auzo

Udalak eta liburutegiak elkarlanean antolaturiko ekitaldiez gain, hiriko auzo elkarteek Liburuaren Eguna ospatzeko ekitaldi desberdinak antolatu zituzten. Dunboako bizilagunen auzo elkartean "Zoo ipuinak" izeneko liburuaren kontaketa egin zuen Lupe Lekuonak, lau eta zortzi urte bitarteko haurrentzat.

Liburuaren irakurketa amaitu zenean, Maialen Zelaia auzoko haurrak azaldu zuen asko gustatu zitzaiola entzundako istorioa, animaliak oso gogoko baititu. Lilura begiradan zutela, auzoko haurrek literaturaren magia gozatzeko aukera izan zuten auzo-elkarteko kortxoetako lurrean eserita zeuden bitartean.

